



**AZPEITIKO "1. ALDE ZAHARRA" EREMUAREN
HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA**

INGURUMEN-DOKUMENTU ESTRATEGIKOA
(Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuari hasiera emateko eskaera)

2024ko apirila



AURKIBIDEA

- I.- Dokumentu honen xedea.
- II.- Plangintzaren helburua.
- III.- Proposatutako planaren eta haren alternatiba zentzuzkoen eta teknika- eta ingurumen-ikuspegitik bideragarrien irismena eta edukia.
- IV.- Plan edo programaren aurreikusteko moduko garapena.
- V.- Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura aplikatzeko arrazoiak.
- VI.- Eraginpeko lurralde-eremuan plana garatu aurretik ingurumenaren egoera karakterizatzeko.
- VII.- Aurreikus daitezkeen ingurumen-ondorioak eta, egoki bada, kuantifikatzea.
- VIII.- Arloko eta lurraldeko plan konkurrenteen gaineko aurreikusteko moduko eraginak.
- IX.- Kontuan hartutako alternatibak hautatzeko zioen laburpena.
- X.- Klima-aldaketa kontuan hartuta plana aplikatzeak ingurumenean izan dezakeen edozein eragin negatibo garrantzitsu prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den heinean, zuzentzeko aurreikusitako neurriak.
- XI.- Planaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurrien deskribapena.
- XII.- Inpaktu akustikoaren azterketa.
- XIII.- Idazlariak
- XIV.- Planoak.

ERANSKINAK

- 1.- NANen kopiak.
- 2.- Planoak.



I.- DOKUMENTU HONEN XEDEA.

Indarrean dagoen Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (behin betiko onartu zen 2013ko azaroaren 17ko ebazpenaren bidez (aurrerantzean, HAPO-2013); "1. Alde Zaharra" eremua mugatzen du eta bere hirigintza-araubidea zehazten du.

Une honetan, dokumentu hau osatzen duen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren zirriborroan azaldutako arrazoiek justifikatzen dute hura formulatzea.

Arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena; 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenak) ezarritakoaren arabera, Plan Berezi horri dagokion ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaio.

Zehazki, V. epigrafean azaldutako arrazoiak kontuan hartuta, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egitea aurreikusten da.

Testuinguru horretan egina, dokumentu hau abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 29. artikuluan aurreikusitako ingurumen-dokumentu estrategikoa da, eta hor ezarritakoaren arabera da edukia.

Dokumentu honek, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuari hasiera emateko eskaerarekin, Plan Bereziaren zirriborroarekin eta sektoreko legeriak eskatutako dokumentazioarekin batera, organo substantiboak (Donostiako udala) ingurumen-organuari (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza) ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuari hasiera ematea eta dagokion Ingurumen Txosten Estrategikoa egitea eskatzeko balioko du.

II.- PLANGINTZAREN HELBURUA.

Plan Berezia indarrean dagoen 2013ko HAPOren garapenean egin da, bertan ezarritako hirigintza-araubidea "1. Alde Zaharra" birdoitzeko honako gai hauei dagokienez:

- * Eraikin horien teilatupeko solairuan etxebizitza independenteak gaitzea eta ezartzea, baldin eta horretarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen badira, bizigarritasunari, irisgarritasunari eta abarri dagozkienak barne, gaian indarrean dauden lege-xedapenetan eta hirigintza-plangintzan ezarritako baldintzetan, Plan Berezi hau barne.
- * Ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritako etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak aplikatzea, 10. artikuluko aurreikuspenekin bat datozen salbuespenak barne, eremuaren hiri-morfologia bereziarekin (partzelak, eraikinak...) lotutako baldintzatzaileek justifikatuta.



- * Bizitegi-eraikin horien fatxadetan hegalkinak moldatzea eta ezartzea, besteak beste, kale edo espazio publikoen zabaleraren edo sekzioaren ondoriozko baldintzak kontuan hartuta.
- * Eraikin horietan dauden etxebizitzak zatitzea edo bereiztea, eta irisgarritasun-baldintzak betetzea. Zatitzeko eta bereizteko igogailuak ezartzeko baldintza bete beharko da aldeez aurretik.
- * Bizitegi-eraikin horien estalkietan terrazak moldatzea, haien baldintzatzaileak kontuan hartuta.
- * Goiko kaleko 2., 4., 6. eta 8. partzelen hirigintza-araubidea berregokitzea eta/edo argitzea, beheko solairuan, kale horren parean, indarrean dagoen plangintzak aurreikusitako erabilera publikoko ataripea ezabatuta.

Osotasunean hartuta, eraginpeko eremuan indarrean dagoen hirigintza-araubidearen testuinguruan, Plan Bereziaren proposamenetatik eratorritako eraginak puntualak eta mugatuak dira.

III.- PROPOSATUTAKO PLANAREN ETA HAREN ALTERNATIBA ZENTZUZKOEN ETA TEKNIKA- ETA INGURUMEN-IKUSPEGITIK BIDERAGARRIEN IRISMENA ETA EDUKIA.

Plan Bereziaren zirriborroan bertan planteatutako proposamen garrantzitsuenak azaldu eta deskribatzen dira, honako gai hauei buruzkoak barne:

1.- Planteatutako esku-hartzeen alternatibak.

A.- 0. alternatiba.

Indarrean dagoen 2013ko HAPOn ezarritako hirigintza-araubidearekin jarraitzea dakar, inolako aldaketarik egin gabe.

B.- 1. alternatiba.

Indarrean dagoen 2013ko HAPOk aurreikuspenak birdoitzea eta/edo osatzea dakar, honako hauek arautzeko baldintzak zehazteko behar diren baldintzetan:

- * 80/2022 Dekretuko bizigarritasun-aurreikuspenak aplikatzea, behar bezala justifikatutako salbuespenekin lotutakoak barne.
- * Eremuko bizitegi-eraikinen fatxadetan hegalkinak moldatzea eta ezartzea.
- * Eremuan dauden etxebizitzak bereiztea edo zatitzea.
- * Eremuko bizitegi-eraikinen estalkietan terrazak moldatzea.
- * Goiko kaleko 2., 4., 6. eta 8. partzelen hirigintza-araubidea doitzea eta/edo puntualki argitzea.

Era berean, teilatupeko solairuei bizitegi-erabilera emateari dagokionez indarrean dauden aurreikuspenak mantentzea dakar, horietan etxebizitza independenteak moldatzea baimendu gabe.



C.- 2. alternatiba.

Plan Bereziaren edukia zehaztea dakar, honako hauetarako beharrezkoak diren aurreikuspenak txertatuz:

- * Teilatupeko solairuetan etxebizitza independenteak ezartzeko baimena ematea, baldin eta horretarako behar diren baldintzak betetzen badira: bizigarritasuna; irisgarritasuna; etxebizitzaren tamaina ertaina eta batez besteko tamaina; eta abar.
- * 80/2022 Dekretuko bizigarritasun-aurreikuspenak aplikatzea, behar bezala justifikatutako salbuespenekin lotutakoak barne.
- * Eremuko bizitegi-eraikinen fatxadetan hegalkinak moldatzea eta ezartzea.
- * Eremuan dauden etxebizitzak bereiztea edo zatitzea.
- * Eremuko bizitegi-eraikinen estalkietan terrazak moldatzea.
- * Goiko kaleko 2., 4., 6. eta 8. partzelen hirigintza-araubidea doitzea eta/edo puntualki argitzea.

2.- Zonakatze orokorra eta zehatua.

Finkatu egin da indarrean dagoen 2013ko HAPOn "1. Alde Zaharra" eremurako ezarritako zonakatze edo kalifikazio orokorreko eta zonakatze edo kalifikazio xehekatuko araubidea.

Testuinguru horretan, Plan Berezia indarreko hirigintza-araubidearen zenbait alderdi argitu, osatu edo berregokitzera mugatzen da eta, zehazki, II. epigrafean azaldutako gaiekin zerikusia dutenak.

5.- Lurren hirigintza-sailkapena eta -kategorizazioa.

Indarrean dagoen 2013ko HAPOk "1. Alde Zaharra" hiri-lurzoru gisa sailkatu du eta bere hirigintza-kategorizazioarekin lotutako aurreikuspenak zehaztu ditu.

Testuinguru horretan, Plan Bereziak aurreikuspen horiek finkatzen ditu.

Estalkipeko solairuetan jarduketan xede diren eta egungo ez-bizitegirako erabileren (trastelekuak...) ordez Plan honek baimendutakoekin ordeztzea dakarten eremuko bizitegi-partzelen eraikigarritasuna handitzeagatik hiri-lurzoru finkatugabe gisa kategorizatzea da salbuespen bakarra, haiek baino balio ekonomiko handiagoak diren neurrian.

IV. PLANAREN AURREIKUSTEKO MODUKO GARAPENA.

"1. Alde Zaharra" eremuan planteatutako proposamenak garatu eta egikaritzeko, kasu bakoitzean dagokion eraikuntza-proiektua egin beharko da, besterik gabe.

Garapen horietako bakar batek ere ez du beharko 2006ko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeko (2/2006 Legea) 194. artikuluan araututakoen gisako urbanizazio-proiekturik formulatzea.



V.- INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUAREN PROZEDURA APLIKATZEKO ARRAZOIAK.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 6. artikuluan ezartzen du zer irizpide hartu behar diren kontuan hirigintza-plangintza ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren edo ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren berezko jarraibideen mende jartzeko. Zehazki, artikuluko horretako 2. atalean adierazitakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua behar dute honako hauek:

- a) *Aurreko atalean aipatutako plan eta programen aldaketa txikiek.*
- b) *Aurreko atalean aipatutako plan eta programek, udalerriko azalera txikiko eremuen erabilera ezartzen dutenak.*
- c) *Etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezarriz, aurreko atalean aipatutako gainerako eskakizunak betetzen ez dituzten plan eta programek.*

Halaber, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak II.B eranskinean aurreikusten du ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedurari atxiki behar zaizkiola:

- 1.- *II.A Eranskineko plan eta programak, udalerriko azalera txikiko eremuen erabilera ezartzen dutenak.*
- 2.- *II.A Eranskineko plan eta programen aldaketa txikiak, II.G Eranskineko aldaketa txikien definizioaren arabera.*
- 3.- *Etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezarriz, II.A Eranskineko 6. eta 7. ataletako gainerako eskakizunak betetzen ez dituzten plan eta programak.*

Bestalde, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretu berrian ezarritakoaren arabera (31. eta 32. artikulukoak), plan bereziei ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin behar zaie.

Xedapen horiek guztiek osatzen duten testuinguru orokorrean, aztertzen ari garen Plan Bereziak ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura bete duela ondoriozta daiteke, honako arrazoi hauek guztiak kontuan hartuta:

- * Lehenik eta behin, 46/2020 Dekretuan berariaz adierazitakoaren arabera (31. eta 32. artikulukoak).
- * Bigarrenik, 21/2013 Legeko "6.2.c" artikuluan adierazitakoaren arabera, Plan Berezia garatzeko sustatu beharreko proiektuek ez dituztelako betetzen lege horretako "6.1" artikuluan ezarritako baldintzak.
- * Hirugarrenik, 10/2021 Legeko II.B.3 artikuluan adierazitakoaren arabera, Plan Berezia garatzeko sustatu beharreko proiektuek ez dituztelako betetzen lege horretako II.A Eranskinean (6. eta 7. atalak) artikuluan ezarritako baldintzak.


- * Plan Bereziak modu mugatu eta puntualean aldatzen duelako indarrean dagoen 2013ko HAPOn "1. Alde Zaharra" eremurako ezarritako hirigintza-araubidea. Beraz, Plan Berezia eta haren proposamenak indarreko plangintzaren aldaketa txikitzat har daitezke eta hartu behar dira, honako hauetan ezarritakoaren arabera:
- 21/2013 Legeko "5.2.f" artikulua, aldaketa txiki gisa definitzen dituen *dagoeneko erabakita edo onartuta dauden baina estrategia, jarraibide eta proposamenen edo horien kronologiaren funtsezko aldaketarik eragiten ez duten (...) planen ezaugarrien aldaketak (...).*
Eta aldaketa txiki gisa, ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren prozedura bete behar dute, 21/2013 Legeko "6.2.a" artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta.
 - Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeko "II.G.n" Eranskinak aldaketa txiki gisa definitzen ditu *dagoeneko erabakita edo onartuta dauden baina jarduketa-eremuaren, estrategia, jarraibide eta proposamenen edo horien kronologiaren funtsezko aldaketarik eragiten ez duten (...) planen aurreikuspenen aldaketak (...).*
Eta aldaketa txiki gisa, ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren prozedura bete behar dute, 10/2021 Legeko "II.B.2" Eranskinean adierazitakoa kontuan hartuta.

VI.- ERAGINPEKO LURRALDE-EREMUAN PLANA GARATU AURRETIK INGURUMENAREN EGOERA KARAKTERIZATZEA.

1.- Azterketa-eremuaren kokapena eta deskribapena.

Eraginpeko eremua Azpeitiko udal-mugaratean (Gipuzkoa) dago, hain zuzen ere, hiri-ingurunearen erdigunean.

Horien kokapena eta mugapena eta egoera dokumentu honetako planoetan eta ondorengo grafikoan jasotakoak dira.



1. grafikoa. Eremuaren kokapena eta mugapena.

2. grafikoa. Eremuaren egungo egoera.



Eremu laua da, guztiz urbanizatua eta artifizializatua, eta irisgarritasun ona du Azpeitiko hiri-ingurunetik.

2.- Klima.

Azpeitiko urteko batez besteko tenperatura 14°C da (Gipuzkoan 13°C). Udako batez bestekoa 21°C-koa da, eta negukoa 7°C-koa. Prezipitazioak ohikoak dira, 1.200 mm ingurukoak.

Köpen sailkapenaren arabera, urtaro lehorrik gabeko klima epel hezea edo atlantikoa du.

Ipar-ekialde (egunez eta udan) eta mendebalde - hego-mendebalde (gauean eta neguan) norabideko haizeak dira nagusi.

3.- Airearen kalitatea.

EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendekoa) neurketa-estazio bat du Azpeitian, hain zuzen ere, Perdillegi kalean kokatua. 2024. urteari buruzko airearen kalitatearekin lotutako datuetako batzuk hurrengo taulan adierazitakoak dira.

1. TAULA. AIREAREN KALITATEA. 2024. URTEA

EZ Batez bestekoa (µg/m³)	NO2 Batez bestekoa (µg/m³)	NOx Batez bestekoa (µg/m³)	PM10 Batez bestekoa (µg/m³)	OZONOA Batez bestekoa (µg/m³)	O3 8h Batez bestekoa (µg/m³)
5	14	22	33,25	25	32

Oro har hartuta, airearen kalitatea ona da eta parametro bakoitzerako ezarritako kalitate-helburuak betetzen dira, legezko eguneko mugak gainditu gabe (1073/2002 ED).


4.- Orografia.

"1. Alde Zaharra" eremua Urola ibaiaren lautada alubialean dago. Orografia laua du.

5.- Geologia eta Geomorfologia.

"1. Alde Zaharra" eremua Urola ibaiaren arroan dago, iparraldean dagoen eta Urgoniar eta Supra-Urgoniar konplexuetako materialak azaleratzen diren Bizkaiko antiklinorioaren luzapeneko Tolosa-Arno mendia antiklinorioaren eta hegoaldean dagoen, iparralderantz doan eta Urgoniar eta Supra-Urgoniar konplexuetako materialak eta Purbek fazeak dituen Udalaiz-Aizkorri antiklinal-failaren egituren artean.

HAPB "1. ALDE ZAHARRA" EREMUA (AZPEITIA).
INGURUMEN-DOKUMENTU ESTRATEGIKOA. 2024ko apirila



Iturria: Euskal Herriko Mapa Geologikoa. EEE

1:25.000 eskalako Euskal Autonomia Erkidegoko Mapa Geologikoan, gainazaleko metaketen litologia bat lotzen zaio, Urola ibaiak jalkitako alubioi-materialena. Material horiei, porositateagatiko iragazkortasun ertaina eta akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handia lotzen zaizkie, geoEuskadi bisorearen arabera.

Eremuan ez da identifikatu Interes Geologikoko Lekurik (IGL).

Ibai-jabari geomorfologikoko ingurunea da. Hondo laua eta estua du eta honako hauek inguratzen dute: Izarraitz mendigunearen (Erlo mendiaren gailurra, 1030m) hegalek, mendebaldean; Ernio (1076 m) eta Gatzume (997m) mendien inguruek, ekialdean; eta Samiño (932m), Izazpi (967m) eta Murumendi (862) mendilerroek, hego-mendebaldean eta hegoaldean. Eremua Urolaren alubioi-sakonunean dago (uholde-lautada), ibai nagusiak Ibaiederren ekarpenak jasotzen dituen erdiko arroaren eremuan eratzen dituen meandroetako batean.

Lurralde lau samarra eta malda txikikoa da (% 0-3), eta itsas mailatik 80-90 metrora dago.



Iturria. geoEuskadi bisorea

6.- Edafologia eta gaitasun agrologikoa.


Alubioi-jatorriko lurzorua, bere garaian balio agrologiko handiagoa edo txikiagoa zutenak, erabat desagertu dira, artifizializatu egin baitira lehendik zeuden hiri-erabilerak hartzeko (bizitegi-eraikinak, ekipamenduak, kaleak, aparkalekuak...).

7.- Azaleko uren hidrologia eta kalitatea.

"1. Alde Zaharra" eremuak Urola ibaiaren erdiko arrora drainatzen du. Aizkorri mendilerroan jaio ondoren eta Kantauri itsasoan itsasoratzen da, Zumaian (Zumaiako itsasadarra). Osagai hidraulikoari erreparatuta, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planak $100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$ mailakotzat hartzen ditu ibai-tarte horiek.

"IEAEko Ibaien Egoera Biologikoaren Jarraipen Sarearen txostena. 2020ko kanpainaren emaitzen txostena"-ren arabera (URA, 2021eko maiatza), eremu-inguruan igarotzen diren ibai-tarteetako uren kalitateak egoera/potentzial ekologiko moderatua izan du 2016-2020 bosturtekoan eta 2020an, ondorengo irudian ikus daitekeen bezala.

UROLA UNITATE HIDROLOGIKOAREN EGOERA EKOLOGIKOA (2020).



Iturria. URA. Uraren Euskal Agentzia EAEko Ibaien Egoera Biologikoaren Jarraipen Sarea.
Urola Unitate Hidrologikoa. 2020ko kanpaina

Urola-D (2016-20) masaren egoera ekologikoaren adierazleek, azterketa-eremutik hurbilen dagoenak eta URO320 azaleko ur-masa adierazgarriak bereizgarri dituenak, ez dute potentzial ekologiko ona lortzen, komunitate fitobentonikoan dituen gabeziengatik, eta 2016an bakarrik du uraren kalitate fisiko-kimiko ez-nahikoa.

HAPB "1. ALDE ZAHARRA" EREMUA (AZPEITIA).
INGURUMEN-DOKUMENTU ESTRATEGIKOA. 2024ko apirila



Arrain-komunitateak behin eta berriz izaten du egoera moderatua. 2017an bakarrik lortu zuen egoera/potentzial ekologiko ona, eta gainerako urteetan egoera/potentzial ekologiko moderatuari eutsi dio.

Masa	Estación	Indicador	2016	2017	2018	2019	2020
Urola-D	URO320	Macroinvertebrados	Muy Bueno	Bueno	Muy Bueno	Muy Bueno	Bueno
		Fitobentos	Moderado	Bueno	Moderado	Moderado	Moderado
		Fauna Piscícola	Moderado	Moderado*	Moderado	Moderado	Moderado
		Estado biológico	Moderado	Bueno	Moderado	Moderado	Moderado
		Fisicoquímica	<Bueno	Bueno	Muy Bueno	Bueno	Bueno
		Hidromorfología	No evaluado	No evaluado	No evaluado	No evaluado	Malo
		Potencial ecológico	Moderado	Bueno	Moderado	Moderado	Moderado

Iturria. EAEko Ibaien Egoera Biologikoaren Jarraipen Sarea. Oria Unitate Hidrologikoa. 2020Ko kanpaina URA. Uraren Euskal Agentzia

Urolaren ibaiadarrek egoera ekologiko ona dute kalitate fisiko-kimiko eta biologikoko elementu guztietan, Ibaieder ibaiaren arroko fitobentoen kasuan izan ezik. Masa horrek berak egoera ekologiko ona izan du, 2018an eta 2020an izan ezik, egoera moderatua izan baitzuen, jarraian ikusiko den bezala.

Masa	Estación	Indicador	2016	2017	2018	2019	2020
Ibaieder-B	UIB154	Macroinvertebrados	Bueno	Bueno	Bueno	Bueno	Moderado
		Fitobentos	Bueno	Bueno	Moderado	Bueno	Bueno
		Fauna Piscícola	Bueno	Bueno	Bueno	Bueno	Bueno*
		Estado biológico	Bueno	Bueno	Moderado	Bueno	Moderado
		Fisicoquímica	Bueno	Bueno	Bueno	Muy Bueno	Bueno
		Hidromorfología	No evaluado	No evaluado	No evaluado	No evaluado	Deficiente
		Estado ecológico	Bueno	Bueno	Moderado	Bueno	Moderado

Iturria. EAEko Ibaien Egoera Biologikoaren Jarraipen Sarea. Oria Unitate Hidrologikoa. 2020ko kanpaina URA. Uraren Euskal Agentzia

2015-2021 aldirako Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren arabera, Urola D ur-masa (ES111R032010) asko aldatuta dago kanalizazioengatik eta ertzen (defentsa) eta estalduren babesagatik eta, horregatik, egoera ona lortzea oso zaila da oztopo horiek kendu gabe. Ildo horretan, "EAEko Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko ibaien kategoriako ur-masen kalitate hidromorfologikoko elementuen ebaluazioa" azterlanaren arabera, Urola D ur-masaren baldintza morfologikoei eta egoera hidromorfologikoak aldaketa-maila handia dute (ur-masa oso aldatua).


2022-27ko Kantauri Ekialdeko Berrikuspenaren Plan Hidrologikoaren ingurumen-helburua da Urola D ur-masan egoera/potentzial ekologiko ona lortzea 2027ko epemugan, eta egoera kimiko ona lortzea 2021ean edo lehenago.

Eremuan ez dago hiri-hornidurako hargunerik.

Heriotzarik gabeko arrantza baimenduta dago Urola ibaia eraginpeko eremutik gertu igarotzen den tartean.

8.- Hidrogeologia.

Izarraitz Lurpeko Uren Masaren barruan (ES017MSBTES111S000007) hainbat sektore identifikatu dira. "1. Alde Zaharra" eremua Izarraizko Kuaternarioko Sektore Hidrogeologikokoa (IKSH) da, eta Izarraitz Sektore Hidrologikoarekin (ISH) lotuta dago iparraldean. Hidrologikoki, ISH hori Urola ibaiaren arroan sartuta dago oso-osorik eta, IKSHk bezala, han isurtzen ditu urak, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala.



Iturria. geoEuskadi bisorea.

Kuaternarioko Sektore Hidrogeologikoa alubioi-metakinek eta metakin detritiko finkatugabe, oso heterogeneo, ale aldakorreko tamainako (legarrak, hareak, lohiak eta buztinak), potentzia aldakorreko eta porositatearen araberako batez besteko iragazkortasunekoek osatzen dute. Fazioak maiz eta bat-batean aldatzen dira alboetan eta horrek anisotropia handia ematen dieten eta iragazkortasun-aldaketak oso azkarrak izan daitezke metakin berean.



Metakin horiek akuifero detritikoak sortzen dituzte, batez ere tamaina txikikoak eta errendimendu eskasekoak, gehienetan finkatugabeak, pikor arteko porositatekoak eta anisotropia handikoak. Zeharkatzen dituzten azaleko ibilguekin hidraulikoki konektatuta egoteko joera dute, influentzia/afluentzia harreman aldakorrek azaleko ibilguaren sartze-mailaren, akuiferoako eta ibaiko ur-geruzaren garaiera erlatiboen, materialen parametro hidraulikoen eta ibai-oheko lohi-mailaren arabera. Konexio hidraulikoa izaten dute material finkatuei elkartutako akuifero hurbilekin ere. Maila piezometrikoaren gainazal topografikoarekiko hurbiltasunak kutsadurarekiko urrakortasun handia du berarekin.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren arabera (2022-27 berrikuspena), lurpeko ur-masa horiek ingurumen-helburuak betetzen dituzte (erabateko egoera ona).

9.- Landaredia eta lurzoruaren erabilera.

Eremuan ez dago zuhaitz- edo landare-espezie esanguratsurik eta/edo interesgarririk.

10.- Intereseko fauna.

Fauna-mota horren presentzia, neurri handi batean, landare-estalkiaren antropizazio-/urbanizazio-mailak eta sinplifikazio-mailak baldintzatzen du.

Eraginpeko eremua ingurunearen eta hiri-paisaiaren parte da, eta eraikinen eta landaredi antropizatuko eremuak daude bertan.

Baztertu egin da Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan jasotako espezieen presentzia.

Eremuaren inguruan gainazalean igarotzen den Urola ibaiaren tarteari dagokionez, ez da kontuan hartzen ingurune urtar horretako espezieei buruzko eragin esanguratsurik.

11.- Korridore ekologikoak.

"1. Alde Zaharra" eremua ez dago EAEko Korridore Ekologikoen Sarean.

12.- Espazio babestuek eta Natura Intereseko Eremuak.

Eremua ez da inolako espazio babesturen edo edozein kategoriatan inbentariatutako natura-intereseko eremuren parte: parke naturala, biotopo babestua, zuhaitz berezia, Natura 2000 Sareko (BGL) zona edo lekua, KBE, HBBE, ibai-erreserba naturalak, etab.

13.- Paisaia.

Eremua Azpeitiko hiri-ingurunearen eta ingurumen- eta paisaia-unitate baten parte da.



14.- Kultura-ondarea.

"1. Alde Zaharra" eremuan dauden balio kultureko eraikinen eta elementuen zerrenda indarrean dagoen 2013ko HAPOn katalogoan jasotakoa da, eta honako hauek osatzen dute:

A.- Ondare arkitektonikoko elementu katalogatuak:

a) EAEko Monumentu gisa deklaraturako/hasiera emandako ondasun higiezinak:

- * Antxieta jauregia (1).
- * Basozabal jauregia (2).
- * Soreasuko Sebastian Donearen eliza (6).
- * Eliz Kale 1eko etxea (7).
- * Altuna etxea (19).
- * Enparan etxea (28).

b) EAEko Monumentu deklaratzeko proposaturako ondasun higiezinak.

- * Udaletxe ohia (5)
- * Abitaingo ikuztegia (15).
- * Udaletxea (27).
- * Enparan zubia (112).


c) Udal-babeseko ondasun higiezinak.

- * Enparan kaleko 4 zenbakiko etxea (3).
- * Enparantza Nagusiko 6., 7., 8., 9. zenbakiko etxea(8).
- * Korregidorearen etxea (10).
- * Erdikaleko 23. Zenbakiko etxea (11).
- * Eliz Kale 21eko etxea (14).
- * Erdikaleko 20. zenbakiko etxea (22).
- * Enparantzako 2-3 zenbakiak / Enparan kaleko 2. zenbakia (25).
- * Julian Elorza zubia (96).
- * Parrokia-etxea (136)

Eraikin eta elementu horien egoera grafiko honetan jasotakoa da.

Aurreko zerrendan azaldutako zenbakiak grafiko horretan bertan jasotakoak dira.

HAPB "1. ALDE ZAHARRA" EREMUA (AZPEITIA).
INGURUMEN-DOKUMENTU ESTRATEGIKOA. 2024ko apirila



Nolanahi ere, kontuan izan behar da, eraikin eta elementu horietatik guztietatik, Plan Bereziak bizitegi-eraikinei bakarrik eragiten diela, eta ez gainerakoei.


B.- Ondare arkeologikoko elementu katalogatuak:

- a) Euskal Kultura Ondarearen inbentario orokorrean EAEko Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako eremu arkeologikoak:
 - * Alde Zaharra (1).
- b) EAEko Monumentu deklaratzeko proposatutako ondasun higiezinak.
 - * San Agustin komentua (E)

c) EAEk ustezko zona ekologikokotzat deklaraturako eremu arkeologikoak:

- * Enparan dorretxea (8).
- * Santo Domingo komentua (12).
- * Santa Kruz ermita (ageriko egiturarik gabe) (13).
- * Bustinzuriko San Martin ospitalea (14)

Eremu horien kokapena grafiko honetan jasotakoa da. Aurreko zerrendan azaldutako zenbakiak edo kodeak grafiko horretan bertan jasotakoak dira.



Nolanahi ere, kontuan izan behar da, eremu horietatik guztietatik, Plan Bereziak bizitegi-erakinek okupaturakoei bakarrik eragiten diela, eta ez gainerakoei.

15.- Sozioekonomia.

EUSTATetik edo Udaletik bertatik lortutako informazioaren arabera, horri buruz nabarmendu beharreko aurreikuspenetako batzuk Azpeitiari buruzko honako hauek dira:

- * 2023an 15.320 biztanle zituen; horietatik, % 49,51 emakumeak ziren eta % 50,49 gizonak.
- * Indarreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (Betiko O.: 2013-IX-17) adierazitakoaren arabera, udalerriaren azalera osoa 6.939,82 ha-koa da.
Guztizko horretatik, 245 ha inguru (% 3,54) hiri-lurzoru gisa sailkatuta daude (horri dagokionez, ez dira zenbatu HAPO horren aldaketa puntualetatik erator litezkeen aldaketak, onartu zenetik sustatutakoak).

- * Guztira 6.707 etxebizitza ditu, horietatik 5.831 nagusiak edo okupatuak (2022ko Eustat).
- * 2021ean, batez besteko errenta ekonomikoa 23.801 eurokoa zen pertsonako. Era berean, urte horretan bertan, emakumeen batez besteko errenta 18.466 €/emakumeko zen, eta gizonena 23.801 €/gizoneko.

16.- Mugikortasuna.

Azpeitia ondo komunikatutako lurraldea da, eta lehentasunezko intereseko sarerako loturak ditu inguruko herrietan.

Ibilgailuentzako sarbidea ona da, udalerriko hirigunean baitago.

Mugikortasun ez-motordunari dagokionez, oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna (bidegorria) ezin hobea da.

17.- Ingurumen-arriskuak.

17.1.- Higadura.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen higadura-maparen arabera (1: 25.000 eskala), higadura-maila baxuko, lurzoru-galera onargarriko eta higadura garbirik gabeko zona batean kokatuta dago eremua.

17.2.- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.

Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioaren edukiaren arabera, eremuan dauden mota horretako lurzoruak ondorengo grafikoan adierazitakoak dira.




LEGENDA / LEYENDA	
	Inventario de suelos con actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo 2022


17.3.- Uholde-arriskua.

EAEko uholde-arriskuari buruzko kartografian jasotakoaren arabera, "1. Alde Zaharra" eremua hurrengo grafikoetan agertzen diren baldintzatzaile eta arriskuen eraginpean dago.

Alde batetik, ES017-GIP-URO-02 kodea duen Azpeitia izeneko Uholdeak izateko Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuaren (UAPEE) eta Lehentasunezko Fluxu Eremuaren parte da, hurrengo grafikoan adierazitako baldintzetan.



Gainera, uholde-arriskua dago 10 urteko (probabilitate handia), 100 urteko (probabilitate ertaina) eta baita 500 urteko (probabilitate txikia) errepikatze-aldietarako ere, hurrengo grafikoan adierazitako baldintzetan.





Oro har, gainezkatze nagusiaren arrazoia ibilguan dauden egiturek eragindako buxadurarekin dago lotuta, batez ere zubiekin, eta honako hau da defentsa-helburua: T50/T100.

Uholde Arriskua Kudeatzeko 2022-27 Planaren Berrikuspenean eta Eguneratzean murriztu egiten dira UAPEE horrek eragindako arriskua eta biztanleria 1. plangintza-zikloan adierazitakoarekin alderatuta, eta I. Multzoaren barruan hartzen ditu, hain zuzen ere, hondamendia eragin dezaketen kalteen arrisku oso handia duten UAPEEak, gertatzeko probabilitate txikia duten gertaeretan uholdeetatik babesteko egiturazko neurriak lehentasunez hartu behar direnean.

17.4.- Akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasuna.

Eraginpeko eremua kalteberatasun handiko lurralde bati dagokio.

17.5.- Arrisku sismikoak.

EAEko Arrisku Sismikoari Aurre Egiteko Larrialdi Plan Bereziak (Eusko Jaurlaritza, 2021eko berrikuspena) ezartzen du azterketa-eremua VI arrisku sismikoko eremu batean dagoela. Udalerrian VII. maila gainditzen ez denez, ez da beharrezkoa Larrialdi Sismikoko Planik egitea eta, ondorioz, ez eta tokiko Jarduketa Planik egitea ere.

17.6.- Baso-suteen arriskua.

Eremuak baso-sutearen arrisku txikia du.

17.7.- Arrisku kimikoa (SEVESO araudia).

Geoeuskadiren informazioaren arabera, inguruan ez dago atal horretako industriarik.

17.8.- Salgai arriskutsuen garraioaren arriskua.

Aztertutako informazioaren arabera, ez da horrelako arriskurik detektatu.

17.9.- Zarata.

2014ko urriaren 7ko Ebazpenaren bidez, Azpeitiko Udalak behin betiko onartu zuen udalerriko zarata-mapa. Haren edukiari eta "1. Alde Zaharra" eremuari dagokionez, honako aurreikuspen hauek nabarmendu behar dira:

A.- Lehendik dagoen bizitegi-izaerako eremu akustiko baten parte da, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala.



B.- Horrelako bizitegi-eremu batean aplikatu beharreko kalitate akustikoaren helburuak hurrengo taulan adierazitakoak dira.


ÁREAS ACÚSTICAS		Objetivos de Calidad dB(A)	
		Ld / Le	Ln
	Residencial existente	65	55
	Industrial existente	75	65
	Residencial futuro	60	50
	Industrial futuro	70	60
	Recreativo existente	73	63
	Docente y cultural existente	60	50
	Terciario	70	65

Hau da, egunez eta arratsaldez helburu horiek 65 dB (A)-koak dira. Eta gauez 55 dB(A)-koak.

